

*ATAUNGO  
ORGANO BARROKOAREN  
NAZIOARTEKO XII. JAIALDIA*

2018ko

*Uztailak 21*

*Abuztuak 5*



Ataungo Udala

## AGURRA

Udako arratsaldeak gure herrian pasa ditzazuen aukera paregabea jarriko dizuegu berriz ere. Jada, hamabigarren urtea da Ataunen organo barrokoaren jaialdia antolatzen dela, eta dagoeneko gure artean ezaguna egin den jaialdia dela ere esan daiteke. Ondo dakizuenez, urtero ohi dugun legez, Udalak eta Donostiako Musika Hamabostaldiak antolatzen ditu eta Euskal herriko eta nazioarteko musikariak parte hartzen dute. Ataungo, Tourseko San Martin Elizan dagoen Organo paregabearekin batera, abeslari ezagunak eta herriko abesbatza uztartuz osatuko dira kontzertuak. Eskuarlean duzuen egitaraua gustukoa izango duzuelakoan, bertan parte hartzeko gonbitea luzatzen dizuet. Besterik gabe har ezazue gure agurik beroena.

Asier Rodríguez Etxeberria,  
Ataungo alkatea.

## TOURSEKO MARTIN DEUNAREN ELIZAN

UZTAILA

ORGANO KONTZERTUA

arratsaldeko 18.00etan

**21**

Larunbata

LORETO ARAMENDI - organojolea

ANA SALABERRIA - sopranoa

PEDRO MIGUEL AGUINAGA- biolina

PABLO MEZZELANI- etnia anitzetako musika tresnak

EATE ABESBATZA

ABUZTUA

ORGANO KONTZERTUA

arratsaldeko 18.00etan

**5**

Igandea

ALIZE MENDIZABAL - organojolea

**6**

Astelehena

Nazioarteko ikastaroan parte hartuko duten organojoleen bisita.

**LORETO ARAMENDI**  
**ANA SALABERRIA**  
**PEDRO MIGUEL AGUINAGA**  
**PABLO MEZZELANI**  
**EATE ABESBATZA**

Organojolea  
Sopranoa  
Biolinjolea  
Etnia anitzetako musika tresnak

### 1.atala. MUNDUKO ETNIA DESBERDINETAKO MUSIKA

*Organoa, etnia anitzetako musikatresnak eta biolina*

**Armenia: ARTZAIN-MUSIKA / DJANGOULOUM (herrikoiak)**.....\*duduk  
**Bulgaria: YANICHARI (herrikoia)**.....\*kaval, kantua, eta Traziako gaita  
**Afganistan: AI BOTE BERAHM (herrikoia)**.....\*kaval  
**Argentina: SENDA Y CREPÚSCULO (Pablo Mezzelani)**.....\*quena eta siku  
nai eta charango  
**Bulgaria: ELENINO HORO (herrikoia)**.....\*nai  
**Txina: ZHU YUEGUANG XIA (herrikoia)**.....\*dizi  
**Errumania eta Moldavia: SOROCUL MARE (herrikoia)**.....\*kaval

*Organoa*

**THIRTY PIECES OP. 18/1 (organorako 5 piezen bilduma)**.....Hugo Distler  
(1908-1942)

### 2.atala. EUSKAL MUSIKA

*Kantari sopranoa, organoa eta biolina*

**ARA NUN DIRAN**.....Jose Maria Iparraguirre (1820-1881)  
**ZIBILLAK ESAN NAUTE**.....Jose Maria Iparraguirre (1820-1881)  
**GITARRA ZARTXO BAT**.....Jose Maria Iparraguirre (1820-1881)  
**OÑAZEZ**.....Aita Donostia (1886-1956)  
**GOIZEKO EGUZKI**.....Jesús Guridi (1886-1961)  
**BIOTZ BAT**.....Pablo Sorozabal (1897-1988)  
**KUKU**.....Pablo Sorozabal (1897-1988)  
**AMA ONA**.....Tomás Garbizu (1901-1989)  
**GOIZIAN ARGÍ HASTIAN**.....Etxahun Irurikoa (1908-1979)

*Abesbatza, kantari sopranoa eta organoa*

**AURTXXO POLITA SEASKAN**.....GABRIEL OLAIZOLA (1891-1973)

*Abesbatza, organoa eta parte-hartzaile guztiak*

**LORETXOA**.....B. LERTXUNDI (1942-) (M. Aierbek moldatua)  
**AMETS (Al vent)**.....RAIMON (1940-) (M. Aierbek moldatua)  
**AZKEN DANTZA HAU**.....MANEX PAGOLA (1941-2018)  
(M. Aierbek moldatua)

Donostiako kontserbatorioan hasi zituen ikasketak, eta han atera zituen pianoko, klabeiko, organoko eta ganbera-musikako goi titulazioak, Esther Mendibur, Loreto F. Imaz eta Cristina Navajasekin.

Baionako Eskualde Kontserbatorioan, Bernadette Carrau eta Esteban Landart irakasleekin organoa ikasi eta Urrezko Domina eta Lehenengo Saria lortu zituen, Hobekuntzako zikloaren bukaeran.

Lyongo Goi Mailako Kontserbatorio Nazionalean (C.N.S.M.D) Jean Boyer, Louis Robilliard, J. Von Oortmersen eta Liesbeth Schlumberger irakasleekin lan egin eta Goi Ikasketen Diploma Nazionalea eskuratu zuen organo espezialitatean.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren beka bat irabazi du bi urtez, baita Lartundo Fundazioarena ere epealdi berean.

Parisen, Eskualdeko Goi Mailako Kontserbatorio Nazionalean bost urteko hobekuntza lana egin zuen Noelle Spieth irakaslearekin, eta klabezineko goi zikloaren amaieran Lehen Saria eta Musika Ikasketako Orokorren Diploma eskuratu zituen. Piano espezialitatean J. Rouvier irakaslearekin lan egin zuen.

Ondoren, hiru urtez bere piano-teknika landu eta hobetu zuen Bartzelonan Edith Fischer eta Jorge Pepi irakasleekin.

Trebakuntzako ikastaro ugari egin ditu M. Radulescu, J. Oortmersen, Jansen, D.Moroney, Requejo, Roberto Szidon, Claudio Brizzi edo Sakharov bezalako irakasleekin, besteak beste.

Errezitaldi ugari eskaini ditu hainbat jaialditan: Estatu Batuetan, Italian, Belgikan, Ingalaterran, Holandan, Argentinan, Japonian, Alemanian, Suitzan, Norvegian, Espainian edo Frantzian.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin hainbat urtetan lan egin du.

Kontzertuak ematen ditu bakarka edo taldean organo, piano edo klabezin jole modura. Bere erreperatorioan garai eta estilo guztiak menderatzen ditu.

Psikologian lizentziatua da Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU).

Organogintzan duen interesa dela eta, 2014. urtetik aurrera alor horretan barneratzen joan da, organoen hainbat zaharberitze eta konponketa lanetan lagunduz zein aktiboki parte hartuz.

Diska bat grabatu du, Brahms, Franck, Liszt eta Tournemire konposatzaileekin. Gaur egun, Donostiako "Francisco Escudero" Kontserbatorioko irakaslea da. Halaber, Donostiako Amaren Basilikako koruko Cavallé-Coll organo-jotzaile titularra da.

2015. urtean disko bikoitza grabatu zuen Santa Maria del Coron, han dagoen Cavallé-Coll organoa erabiliz. C. Franck, F. Liszt, J. Brahms eta Ch. Tournemire izan ziren grabatutako abestien egileak

2017. urtean beste disko bikoitz bat grabatu zuen Saint Ouen de Rouen Cavallé-Coll organoan, Louis Robilliarren transkripzioekin.

Loreto Aramendiren hurrengo kontzertuak munduan zehar izango dira. Estatu Batuetatik Norbegiara, Japonaitik Italiara. Frantzian, Islandian, Errusian, Eslovakian, Alemanian eta Espainian. [www.loretoaramendi.com](http://www.loretoaramendi.com)



## Ana Salaberria *sopranoa*



Abesbatza-abeslari moduan ibilbide luzea duen soprano donostiarra, baita bakarlari bezala ere. Donostiako Orfeoian hasi zuen bere ibilbidea, eta talde horretako kide izaten jarraitzen du. Ikaskuntzan nekazina eta ikasketan iraunkorrada eta ahotsarekin edertasuna eta gozamina bilatzen ditu. Oso erreperitorio zabalak lantzen ditu, oratoriotik zinema-musikara. Donostiako Orfeoiko "Antxon Ayestaran" musika-tailerreko irakaslea da.

## Pedro Miguel Aguinaga *biolinjolea*

Donostiarra, Donostiako kontserbatorioan egin zituen ikasketak (biolina M<sup>o</sup> Echevesterekin), gero P. Bucataru, V. Martín, G. Comellas, F. Ayo, A. Pavlovich, A. León Ara, I. Ozim, E. Illif eta G. Claret irakasleekin bikainduz.

JONDE (Joven Orquesta Nacional de España) orkestrako partaidea izan zen eta ECYO (European Community Young Orchestra) orkestrako beka jaso zuen.

1986. urtetik Donostiako "Francisco Escudero" kontserbatorioari irakaslea da. Halaber, Errenteriako Orkestra Kurtsoetan, Gazteluko Musika Udalekuetan, Euskadiko Musika Eskolen Orkestra eta EIO orkestrako irakaslea izan da. Gainera, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren GARATU Planeko ikastaroak antolatu eta zuzentzen ditu.

Kontzertino eta bakarlari moduan talde hauetan parte hartu du: Donostiako Kontserbatorioari Orkestra Sinfoniko eta Gazte Orkestran, Errenteria Musikaleko Orkestran, Donostiako Barroko Taldean, Aita Donostia Orkestran, Gipuzkoako Ganbara Orkestran, Iruñako "Estudio Barroco", "Donostiarra" Orkestra Sinfonikoan, Euskadiko Orkestra Lirikoan eta Iruñako AGAO Opera Orkestran.

Ondorengo taldeekin lan egin du: Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Logroñoko Orkestra, Concerto Orkestra, Irungo Orkestra, Arrasate Musical-eko Orkestra, Coté Basque-ko Orkestra, Euskadiko Bakarlariak, Bereco Orkestra Sinfonikoa, Conductus Ensemble, Camerata Cambrensis, Ensemble Kuraia, besteak beste.

Ganbara musika landu izan du hainbat taldetan. Besteak beste, 1987tik Usandizaga Laukotean eta Vilacello Laukotean (1989-1991).

Bakarlari edo ganbara musika taldeetako partaide gisa honelako nazioarteko hainbat jaialditan parte hartzen du: Donostiako Hamabostaldian, Musikarten, Bach Jaialdian, Orquestres Europeenesen...

Gainera, folk, pop, rock eta jazz arloan kolaborazioak eta grabaketak egiten ditu.

2004tik Cuarteto Tango Querido taldeko kidea da. 2005ean Sotto Voce Orkestra sortu zuen eta bertako kontzertinoa da. 2009. urtetik Irungo Luis Mariano orkestrako kontzertinoa da.

Irungo Luis Mariano Lirika Elkarteko presidentea da.



## Pablo Mezzelani *etnia anitzetako musika tresnak*

Banfielden jaio zen (Buenos Aires, Argentina) eta Musika ikasketak bere hirian hasi zituen.

Bulgariako gobernua beka eman zion Plovdiveko Musika Artean eta Dantza Akademian (A.M.T.I.)

musika-folklorean eta etnomusikologian espezializazioa egiteko. Etnografia eta organologia esparruan ikerketa eta zabalkunde lan zabala egiten du. Austriar, Vienako

Afroasiako Institutoan herri-musika zein etnikoaren kurtsoak ematen ditu. Gainera, Argentinan, Buenos Aireseko Udal Dantza Eskolan musika folklorea irakasten jardun du.

Munduko soinuak izenarekin, kontzertu didaktiko moduan, bere bilduma etnografiko eta munduko hainbat herrialdeetako instrumentu-herriko aurkezten du.

Bere musika proiektu guztietan, instrumentu-etniko ezberdinen interpretazioen trebetasuna erakustez gain, jatorrizko hizkuntzetan abesten du. Baina, zalantzarik gabe, Pablo Mezzelani esparru batean nabarmentzen bada, tangoa da. Bizitza tangoari eskaini dio, baita ikaskuntzari eta interpretazioari ere. Bai instrumentista, abeslari, konpositore eta moldatzaile bezala. Esparru honetako bere proiektu nagusienak Tango con historias eta Cuarteto Tango Querido dira.

Gaur egungo beste proiektu interesgarriak Etnótika, Haizea eta Harriak eta Betiereko abestiak dira. Halaber, bakarlariei eta taldeei laguntzeko sarritan deitzen diote. Diskografia zabala du, bai bakarka eta baita hainbat taldeekin ere.



## EATE abesbatza

1994. urtean sortu zuten Ataunen Eate Abesbatza 13 emakumek eta 14 gizonek. Maximo Aierbe eta Dionixio Etxeberria izan ziren bultzatzaile nagusiak, Maximo Aierbe zuzendari zutelarik. Bere lehen kantaldia 1995eko azaroaren 4an eskaini zuen Beasaingo Akordeoi Orkestrarekin batera Ataun San Martingo elizan eta 1996ko urtarrilaren 6an egin zuten aurkezpen emanaldia. Azken kantaldia, berri, 2005eko azaroan, Jentilen Etorreran. Hamabi urte iraun zuen ibilbide honek; herrian eta herritik kanpo kantari ibili ondoren, 2006. Urtean desegin zen arte.

10 urte isilik egon ondoren, 2016ko urtarrilean berriro ekin zion ibilbideari. Gaur egun 24 emakume eta 14 gizonetako osatzen dute Eate Abesbatza berritua, hauetatik 11 kantari lehen aritutakoak dira. Zuzendari lanetan Maximo Aierbe ari da, eta zuzendari laguntzaile Nekane Eskisabel eta Dionixio Etxeberria.

2016ko azaroaren 5ean egin zen Eate Abesbatza berrituaren aurkezpena jendaurrean. Ataungo San Martin elizan egin zen aurkezpen kontzertuan zazpi kanta abestu zituzten Ataungo txistulari taldearen eta Jon Munduate herriko organo jolearen laguntzarekin.

Eate Abesbatzaren kantutegia euskal kantek osatzen dute; euskal kanta zaharrak eta, gehienbat, gure garaikideak: 60. Hamarkadatik gaur egun artekoak, alegia. Euskal kantak oro har, baina, tartean euskarazkoa ez den kanta klasikoren bat kantatzeari uko egin gabe, hala egokituz gero.





**Donostiako  
Musika Hamabostaldia  
Quincena Musical  
de San Sebastián**

## ABUZTUA

5

Igandea

ALIZE MENDIZABAL

organojolea

Arratsaldeko 18.00etan.

6

Astelehena

Nazioarteko ikastaroan parte hartuko duten  
organojoleen bisita.

Babeslea:  
**ENRIQUE LARTUNDO  
FUNDAZIOA**